

Tolosa «babestu eta berpizteko» 1,3 milioko plana

Suspertu Tolosa Guztion Artean izeneko plana aurkeztu du Tolosako Udalak, Covid-19ak eragindako krisi ekonomikoari aurre egiteko; gizarte babesa bermatu, ekonomia sustatu eta herri izaerari eustea lortu nahi dute //2

Eskualdeko mendiak mendizalez betetzen hasi dira

Astelehenetik posible da norbere herritik ateratzea, eta askok inguruko mendietara joateko baliatu dute aukera; Txindokira, jende asko gerturatu da //5

Villabonako merkataritza sustatzeko kontsumo bonuak

10 euroko bonuak erosi ahalko dituzte herritarrek maiatzaren 26tik aurrera; 110.000 euro inguruko kontsumoa egingo dela uste du udalak //3



TOLOSALDEA FRONTOIETAN ARI DIRA

Pilotariei etxetik kanpo entrenatzeko aukerarekin batera, pilotalekuan aritzekoa ere zabaldu zaie, eta eskualdeko pilotariak herri desberdineko frontoietan ari dira; Miren Larrarte bidaniarrak uztailean jokatu du Emakume Master Cup txapelketako finala, Irungo pilotalekuan //7

IMANOL GARCIA LANDA

IRURAKO HAURRESKOLA, HAURRAREN HAZTE PROZESUAN BIDELAGUN

Izenematea **online**: Maiatzak 21etik Ekainak 8ra
Haurreskolan: Ekainak 1etik 8ra

Bi gela, prestatutako kanpo espazio zabala, mugitzeko, jolasteko eta atseden hartzeko aukera zainduekin. Haur kopuru mugatua, ordutegi malguak, familiaren beharretara egokituak
Kontsultatu Irurako Udaletxean familientzako ezarritako diru laguntzak



Ezagutu gaitzazu! Gurekin kontaktatu irura.irura@haurreskolak.eus helbidera idatziz eta jarriko gara harremanetan
San Migel Enparantza, 6 - Tfnoa.: 943 69 33 11 - [f](#) Irurako Haurreskola



Nerea Letamendia, Joxe Mari Villanueva, Begoña Tolosa zinegotziak, eta Olatz Peon alkatea, ostiralean udaletxean egin zuten prentsurrekoan. JOSU ARTUTXA

1,3 milioi euro baino gehiago, Tolosa babestu eta berpizteko

Suspertu Tolosa Guztion Artean izeneko plana aurkeztu du udalak; hiru ardatzetan, epe motz zein luzera begirako 32 neurri jasotzen ditu

Josu Artutxa Dorronsoro

Tolosako Udalak 1.332.380 euro erabiliko ditu, Covid-19ak eragindako pandemiaren ondorioz sortutako osasun krisiak berarekin ekarri duen krisi ekonomikoari aurre egiteko. Udal gobernuak kideek ostiralean aurkeztu zuten Suspertu Tolosa Guztion Artean izeneko plan berria. 32 neurri biltzen ditu proiektuak, batzuk epe laburrera begirakoak dira, berehalakoak, beste batzuk, berriz, epe ertainera begirakoak, eta hiru ardatz edo helburu nagusitan banatzen dira: gizarte babesa bermatzea, hiri ekonomia sustatzea eta herri izaerari eustea. Aldi berean, herritarrentzat behar berriak sortuko balira, horiei erantzuteko konpromisoa ere hartu du udal gobernuak.

Olatz Peon alkatea, eta Begoña Tolosa, Nerea Letamendia eta Joxe Mari Villanueva zinegotziek hartu zuten hitza prentsurrekoan. Alkatea nabarmendu zuen udala «erantzukizunez eta zuhurtziaz» ari dela lanean, egoera oso aldakorra ari delako izaten. «Erakundeen arteko lankidetzan oso garrantzitsua da, eta

Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak osatu nahi ditu udalak. Gure helburua udal-baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean kudeatzea da», azaldu zuen Peonek.

Alkatea adierazi zuen, egoerari aurre egiteko dagoeneko diru ekarpen garrantzitsua egin duela udalak. «Gizarte Zerbitzuetako gastuek gora egin dute, eta era berean, herritarren segurtasuna eta osasuna bermatzeko hainbat zerbitzu indartu dira». Aurrekontua urteko diru-sarrerara eta gastuen aurreikuspena eginenez garatzen dute eta Foru Funtsaren %20-25eko murrizketak, testuinguru berri batean kokatu ditu udalak. «Foru Funtsa da udalen finantzazio bide nagusietarikoa. Diru bilketak ere behar egingo duenez, aurrekontua berregin behar izan dugu».

Egoerari eta ekar ditzakeen ondorioei erreparatzen hasita, une honetan ziurgabetasuna eta ezjakintasuna nagusi direla adierazi zuen Peonek. «Aurreikuspen bat egin dugu aurtengo urteari begira, baina badakigu datorren urtea ere oso gogorra izango dela. Hortaz, etorkizuneari sortu daitezkeen behar berriei

ere erantzuna emateko gaitasuna izan behar dugu».

MALGUTUZ, LAGUNDU

Gizarte-babesa bermatzeko, besteak beste, gizarte larrialdietarako diru-laguntza lerroa handitu da (101.000 euro), Zutani elkarrekin elikagaiak banatzeko hitzarmena berritu da (2.000 euro gehiago), elikagai bankuko banaketa osatzeko bonu sozialak sortuko dira (beharrezkoa den diru kantitatea bideratuko da horretarako), indarkeria sexistaren biktimak diren emakumeei laguntza handiagoa emango zaie, bateratze-sistemak garatuko dira, adinekoei laguntzeko Adinkide programa jarriko da abian, Abegi zentroan hitzartutako obra egingo da (173.000 euro), eta egoera ekonomiko ahulean dauden etxebizitzak parke publikoetako maizterrei ez zaie errentarik kobratuko (21.000 euro).

Bestetik, hiri-ekonomia aktibatzeke, herriko saltokien eta pertsona autonomoen datu-basea eguneratu da. Horrez gain, tokiko jarduera ekonomikoari laguntzeko, 777.000 euro erabiliko dira merkatarientzat, zerbitzuen sektoreko langileentzat, ostala-

Ostalaritzari eta turismoari laguntzeko erosketa-bonuen kanpaina bat jartzea pentsatzen ari dira

Eskualdeko eta probintziako herritarrak ere erakarri nahi dira, herria biziberritzako.

rientzat, autonomoentzat eta enpresa txiki eta ertainentzat.

Era berean, 60.000 euro bideratuko dituzte diru-laguntzen kudeaketarako aholkularitza zerbitzura, babes-materialaren erosketara eta banaketara, eta Bedaio auzoan zuntz optikoarekin izandako arazoak konpontzera. Halaber, egutegi fiskala malgutuz, ostalariek zaborren eta terrazen tasa ordaindu ahal izateko laguntzak izango dituzte sei hilabetez. Komertzioak ixtea ekiditeko Berriz programa jarri da martxan, baita Azoka egoera berrira egokitzeko plana eta protokoloak ere. Azkenik, Emari guneko ekintzaileei, espazioa erabili ezin izan duten epean, alokairua ez kobratzea erabaki da.

Baina gizarte-babesa bermatzeaz eta ekonomia suspertzeaz gain, herriaren nortasunari eusteko ahalegina egin nahi du udalak. Hori dela eta, bere jarduerak babesteko, tokiko elkarte eta taldeen diru-laguntza guztiak mantentzea erabaki da. Gainera, eragileekin batera, San Juan jaientarako programa alternatibo bat garatzen ari dira.

ERAKARRI ETA BIZIBERRITU

Berrakibatze-neurriei dagokionez, hala nola, tokiko kontsumoa sustatzeko bonuen bitartez, Suspertu Tolosa kontzientziazio-kanpaina jarri da abian zerbitzuen eta merkataritzaren sektorean (92.200 euro). Kanpaina honen baitan ere, herriko izaerari lotuta, eragileen lana balioan jartzeko ikus-entzunezko lan bat sortuko da. Tolosatik harago ere egingo da kanpainaren promozioa, eskualdeko eta probintziako herritarrak erakarri eta Tolosa biziberritzeko asmoz.

Horrez gain, ondorengo faseetan, eta sektore bakoitzarekin adostuta, ostalaritzarako eta turismoarako antzeko kanpaina bat egin nahi da (30.000 euro). Bestetik, Tolosa&Co-rekin hitzarmena berritu da (6.000 euro gehiago), ekintzailatza sustatzeko kanpaina eta jarduerak egin dira, eta langabetuak kontratatzeke diru-laguntzak eta formakuntzak jarri dira martxan.

Hiri-ekonomia suspertzeko neurriekin jarraituz, Azoka Zure Etxera ekimena mantendu eta zerbitzua ekoizle gehiagorengana zabalduko da, Tokiko saltokietan ekoizleen produktuak merkaturatzeko egitasmoa indartuko da, *Jan Tolosaldea: tokikoa, iraunkorra eta osasungarria* proiektua babestuko da, eta larunbatetako azoka bultzatzeko, *Azoka Lagunak* proiektu berria abiaraziko da.

HERRI IZAERARAKO NAHIA

Bestalde, herriko kultur eta kirol taldeekin elkarlanean, udararako zein udazkenerako programazioa garatuko da, tokiko taldeen parte hartzea lehenetsiz, beren jarduna babesteko. Eskaintza zabala eta askotarikoa garatzea da helburua, eskualdeko eta probintziako bisitariak ere Tolosara erakartzeko tokiko hiri ekonomia sustatu eta turismoa ere biziberritzeko.

Komunitate izaera sendotzeko, berriz, Tolosatzen proiektuaren eta Tolosatzen Eskola Irekiaren egitasmoaren baitan, *Orain inoiz baino gehiago: guztion artean Tolosatzen* prozesu parte-hartzailea abiaraziko da.

Elikadura osasuntsuaren aldeko aldarria Anoetan

Erredakzioa Anoeta

San Isidro eguna herri osoaren festa izatetik, baserritarrek soilik ospatzen duten eguna izatera pasa da azken hamarkadetan. Urteak dira baserritarrek otordu bat egiten dutela egun horren bueltan, baina aurrean eta gogoeta bultzatu nahian, maiatza osoko egitaraua osatzekotan zen Anoetako Udala, «tokiko elikadura osasuntsuaren ekoizpenak duen garrantzia azpimarratu eta, berriz ere, herria eta baserritarren arteko zuhiak eraikitzen hasi asmoz».

Osasun egoeragatik ezin izan dute egitaraua aurrera eraman, baina aurreko ostiralean Anoetako Udalak herritarren artean bideo bat zabaldu zuen. Bertan aipatzen denez, irakaspen «handiak» geratu dira errazak izan ez diren azken hilabeteetan: «Ikusi ditugu baserritarrak, etenik gabe, baratzeetan, ukuiluetan lanean elikagaiak ekoizten. Ikusi ditugu herriko dendariak, egunez egun, herritarrei lehengaiak eskaintzen. Eta ikusi ditugu herritarrak, inoiz baino gehiago, herriko dendetan erosketak egiten. Bertan

aukeratu genezake bertakoa edo munduko beste puntatik datorrena kontsumitu, herriko dendan erosi edo supermerkatuan, biodibertsitateari eutsi edo hau suntsitzen duena kontsumitu, tokiko komunitatea indartu edo gure lurraldera batzen ez gaituena aukeratu».

Horregatik *Bertakoa Bertatik* kanpainarekin jarraitzeko asmoa agertu du udalak: «Lurretik platerara bitarteko kate horretako kate begi bakoitza indartuz jarraitu nahi dugu. Jaten dugunetik ere egiten dugu Anoeta».

Udaleku irekiak bertan behera utzi dituzte Zizurkilen

Erredakzioa Zizurkil

Eudeletik jasotako udarako gomendioaren artean herrietan antolatzen diren udaleku irekiak bertan behera uzteko gomendioari kasu egingo dio Zizurkilgo Udalak.

«COVID-19a dela eta sorturiko egoerak ez du bermerik ematen, behar diren neurriak hartuz, udalekuak antolatzeko, beraz, Zizurkilgo Udalak udalekuen an-

tolaketa lanak bertan behera uztea erabaki du». Horrela jakinarazi du ohar batean Iker Urruzola alkateak.

Egoera aldatuko balitz, eta momenturen batean gomendioak desberdinak izango balira, udalak berriz ere udalekuak antolatzearen aukera aztertuko luke. «Guztion, eta bereziki gure umeen osasunaren alde erabaki zentzudunena dela uste dugu», esan dute udaletik.

Merkataritza sustatuko dute kontsumo bonuen bidez

Amasa-Villabonako Udalak aurreikusi du, kanpaina honen bitartez, herriko establezimenduetan, guztira, 110.000 euro inguruko kontsumoa egingo dela

Erredakzioa Amasa-Villabona


Merkataritza da lanpostu gehien sortzen duen jarduera ekonomikoa Amasa-Villabonan. Horregatik bertako udalak babestu beharreko sektorea dela uste du: «Kontsumo eredu berriak indartu diren heinean –merkataritza zentro handiak, produktuak *online* saltzeko multinazionalak–, herriko merkatarien esparrua estutu da, ia-ia ito arte. COVID-19ak eragindako egoerak, gainera, egoera zaildu egin du».

Euskal Herrian bultzatu nahi den kontsumo ereduaren inguruko gogoeta bat egitea «ezinbestekoa» dela uste du Amasa-Villabonako Udalak eta esan du, eztabaida hori, instituzioei eta herritarrei dagokiela maila berean. «Elkartasun keinu bat izatetik harago joan behar du, gure herriko etorkizunean, guz-

tion etorkizunean eragina izango baitu».

Amasa-Villabonako Udalak adierazi du herriko merkataritza eta dendarietan oinarritzen den ereduaren alde egin nahi duela, «aberastasuna herritarren artean banatzen duena delako, bertako produktuen salmentan eta garapenean laguntzen duelako, gertuko zerbitzua ematen duelako eta herriari bizitza eta alaitasuna ematen diolako». Beraz, herriko merkataritza jarduera indarbertitzeko kontsumo bonuen kanpaina bat jarri du martxan.

Udalak 32.000 euroko ekarpena egin du herrian bertan kontsumitzearen aldeko kanpaina hau antolatzeko. Horietatik 2.000 euro kanpainako hainbat gastu ordaintzeko erabiliko dira –inprenta, diseinua, publizitatea– eta 30.000 euro bideratuko dira kontsumo bonuetara.



Udaleko balio anitzeko gelan salduko dira 10 euroko bonoak datorren astean. J.M.

Diru horrekin 3.000 txartel inprimatuko dira herritarren artean doan banatzeko, COVID-19aren eraginez derrigor itxita egon diren dendetan erabiltzeko. Kanpaina honen bidez, dena hauetan guztira 110.000 euro inguruko kontsumoa egitea lortuko litzatekeela aurreikusi du udalak.

10 EUROKO BONUAK

Bonu guztiek 10 euroko balioa izango dute, eta hauek eskuratzeko garaian herritarrek aukera ezberdinak izango dituzte: 20 eurorekin hiru bonu erosi ahal izango dituzte; 50 eurorekin 7

bonu edota 70 eurorekin 10 bonu.

Bonuak maiatzaren 26tik ekainaren 30era erosi ahal izango dira udaletxeko balio anitzeko gelako sarreran, liburutegiaren ondoan, astelehenetik ostirale-ra, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:30era. 16 urtetik gorakoek eta Amasa-Villabonan, Zizurkilen, Asteasun, Adunan, Larraulen eta Alkizan bizi direnek eskuratu ahal izango dituzte. Beti ere, pertsonako 10 bonu erosteko gehienezko muga jarritako.

Amasa-Villabonako Udalak ohartarazi duenez, bonu guztiak

batera edo banaka erabili daitezke eta egiten den erosketak gutxienez 10 euroko balioa izan behar du. Erosketa kopuru horretara iristen ez bada, aldea ez da eskudirutan itzuliko. Gainera, bonuak ez dira eskudirura trukatu, eta behin erositako, ezingo dira itzuli.

Kanpaina honetan parte hartu nahi duten dendariak aurrez izena eman beharko dute. Denda edo establezimenduek baldintza bakarra bete beharko dute kontsumo bonuen ekimenaren parte hartzeko: COVID-19aren osasun larrialdiaren ondorioz eta Espainiako gobernuak onartutako dekretuaren eraginez, establezimendua derrigorrez itxita eduki izana. Udalak prestatu duen inprimakia bete beharko dute merkataria eta ostalariak eta gaur dute hori aurkezteko azken eguna, udaleko arreta bulegoan aurretiazko hitzordua eskatuta edo zurretzat@villabona.eus helbidera bidalita.

ELKARLANERAKO DEIA

Amasa-Villabonako Udalak ohartarazi duenez, hau guztia eraginkorra izan dadin eta herriko merkataritzak etorkizuna izan dezan, azken hitza erosleak dauka.

Dei hau luzatu nahi izan du udalak: «Horregatik dugun/duzun kontsumo ereduaz aztertzeraz gonbidatu nahi zaitugu, gure mentalitatean *klik* egin eta beste etorkizun bat pizteko konpromisoa hartu dezagun. Inoiz baino gehiago behar zaituztegu. Bai herritarrek bertako dendariak, eta baita dendariak bertako herritarrak ere. Elkarlanean lortuko dugu».



ATARIA

«Gogoz eta ondo pasatuz gero, askoz gehiago ikasiko du»

AINHOA ELIZONDO
MUSIKA IRAKASLEA

Loatzo Musika Eskola eskualdeko zortzi herritan dago, eta bertako haur, heldu eta erretiratuak matrikulatu daitezke

Eneritz Maiz Etxarri

Loatzo Musika Eskolak Tolosaldeko zortzi herritan ematen ditu klaseak. Altzo, Alegia, Aduna, Anoeta, Ibarra, Irura, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo herritarrek dute izena emateko aukera hilaren 29a bitarte. Ainhoa Elizondo irakasleak hitz egin du TOLOSALDEKO ATARIA-rekin.

Matrikulazio kanpaina betebetan zaudete?

Bai. Astelehenean hasi ginen, eta bi astez luzatuko da. Aste honetan ikasle direnentzat irekitzen da, eta datorren astean ikasle berriak izango direnentzat. Internet bidez egin beharko dute www.loatzo.eus webgunean matrikulazio atalean galdetegia bezet. Zalantzaren bat argitu nahi duenak 943 692 619 telefono zenbakira deitu dezake.

Lau urtetik aurrerako ikasleekin hasten zarete. Garrantzitsua da hain txikitatik musika lantzen hastea?

Dударик gabe oso garrantzitsua da. Orain Euskal Herrian ere zabaltzen ari den fenomeno dago, eta dagoeneko batzuk urtea bete baino lehen hasten dira. Gu Loatzen lau urterekin hasten gara, eta gaitasun horiek zenbat eta txikiago hasi lantzen denbora gehiago dute garatzeko. Burmuina irekiago egoten da, eta gartzen ari da, eta lantzen diren atal guztiekin zenbat eta lehenago hasi hobeto izaten da.

Lau urtetik zazpi urtera bitartekoa jolas moduan edo erakutsiko duzue, ezta?

Musika tailerra deitzen diogu etapa horri. Musikarekin askok izaten duten lehen kontaktua izaten da; musika eskolarekin behintzat bai. Oso modu ludiko batean lantzen ditugu erritmoa, ahotsa, memoria,... eta horrekin batera perkusio txikiekin hasten gara. Eta oso garrantzitsua da guretzat emozioen lanketa egitea, edo kudeatzen laguntzeko egiten dugun lanketa hori.

Ondo pasatzea izango da helburuetako bat?

Bai, lehen helburua dudarik gabe. Zerbait gogoz eta ondo pasatuz egiten badugu, askoz gehiago ikasiko dugu haurrak. Umea gustura etortzea da lehen helburua eta seguru sentitzea. Eskolan, irakaslearekin, lagun berriekin eta sortu duen talde berriarekin.

Lagunak egiteko ere balio izaten die?

Bai. Herri batzuetan ikastetxe ezberdinetakoak elkartzen dira eta lagun berriak egiten dituzte. Eta helduagoak direnean ondo herrietakoekin elkartzen dira, eta oso polita da ikustea luzarotan zein harreman politak eta aberasgarriak egiten dituzten.

Behin zortzi urte beteta musika tresna aukeratu behar dute. Garbi izaten dute?

Denetarik egoten da. Batzuk oso oso garbi izaten dute txikitatik, eta beste batzuk ez. Lanketa egin behar izaten dute, eta zazpi urteko ikasturtea tresnak ezagutzeko eta probatzeko izaten da. Garbi ez duten ikasleentzat lanketa hori egitea oso garrantzitsua da. Gurasoekin batera gustuko dutena aukeratzeko laguntzen diegu. **Helduek eta erretirodunek ere izena eman dezakete. Animatzeko dira?**

Bai, eta azken urteetako joera hori da. Gero eta heldu gehiagok ematen dute izena, eta orokorrean emakume gehiago dira animatzeko direnak. Bai helduak eta baita erretiratuak ere. Eta aurtengo Villabonako Santiago egoitzako egoiliarrekin jarri dugun proiektua ere aipatu nahiko nuke. Batez beste 90 urte dituzten bi talde etortzen zaizkigu.

Esperientzia polita?

Oso polita. Aspalditik nahi genuen, eta nola egin buruari bueltak ari ginen. Irakasle bat formatu zen, eta oso aberasgarria eta hunkigarria izaten ari den esperientzia izan da. Egoitzatik atera, eta zein harreman duten musikarekin eta nola on egiten dien ikustea benetan hunkigarria da.

Umeetan bezain garrantzitsu da musika helduetan?

Bai. Heldu bat musika eskolara etortzean berak aukeratu duela izaten da; gogoak duelako edo aspaldiko amets bat bete nahi duelako. Motibazio eta dedikazio handia izaten dute. Askori lasaitzen laguntzen dio. Beste batzuk helburu oso zehatzak izaten dituzte. Inauterietan txaranga batean jotzen ateratzea edo familiar lau kanta jo eta kantatzeko gai izatea. Gu beraien behar eta nahietara moldatzen gara.

Ahozko kultur sorkuntza ikertzeko deialdiak, martxan

Mintzolak 2.000 euroko bi proiektu sari, eta doktorego aurreko ikerketa kontratu bat esleituiko ditu

Erredakzioa Amasa-Villabona

Edozein jakintza alorretatik abiatuta, antzerkia, bertsolaritza, kantagintza, kontalaritza edo ahozko kultur sorkuntzaren baten ikerketa egiteko aukera eskainiko du Mintzolak aurtengo ere: bi deialdi jarri berri dituzte martxan horretarako, EHUko Mikel Laboa Katedrarekin elkarlanean.

Batetik, 2.000 euroko bi proiektu sari eskainiko dira: lanak urtebeteko epean egin beharko dira. Bestetik, EHUn gauzatuko den doktorego aurreko ikerketa kontratua eskuratzeko deialdia egin dute; kasu honetan, EHUko Euskara eta Ikerketa

errektoreordetzek ere babestu dute deialdia.

Deialdi batean zein bestean parte hartzeko, ikerketa proposamenak ekainaren 26a baino lehen bidali behar dira, eta ebazpena uztailaren 20rako jakinaraziko da. Informazio guztia mintzola.eus web orrian dago.

PELLO MARIOTANO BEKA

Ekainaren 19a bitarte aurkeztu ahal izango dira proposamenak Pello Mari Otaño bekarako: Aiztondoko ahozkotatasuna eta ahozko kultur sorkuntza ikertzeko helburua duten proiektuak hartuko dira aintzat, eta hautatuak 3.000 euroko diru laguntza jasoko du lana garatzeko.

GUTUNA

Argi-ilunak Enirio-Aralarren

Maiatzaren 1ean ireki dira larreak urtero bezala Enirio-Aralarren, mendiak hiru hilabete eskaseko atsedena izan ondoren. Aurtengo datuen arabera, 130 abeltzain dira baimenduak larreak erabiltzeko, orotara 37 artzain eta 17.311 ardi, 35 behizale eta 985 behi eta azkenik, 58 behorzale eta 862 behor igoko direlarik Aralar Natur Parkeko goi larreetara. Iazko datuekin konparatuz, aurtengo ganadu gehiago egongo da Enirio Aralarren, 30 ardi, 48 behi eta 84 behor gehiago. Oso kezkarria iruditzen zaigu igoera hori, batez ere, behi eta behorrena, 2019ko larreen planaren arabera 5-7 urtetan behiak 550-650 burura eta behorrak 350-400 burura murriztu beharko liratekeelako.

40 artzain txabola ditu mankomunitateak Enirio Aralarren eta aurtengo datuen arabera, ez dira txabola guztiak beteko, hau da, 3 hutsik geratuko dira, eta jakin beharko genuke ia hutsik diren txabolak pisten inguruan dauden edo pistetatik urrun, pisten gertutasunaren arabera, txabolen banaketa egin beharko litzatekeelarik.

Bestalde albiste ona iruditzen zaigu mankomunitateak aurtengo

abeltzain guztiei osasun-gida eskatu izana, hau da, abere guztien mugimendua aitortzen duen agiria eskatu izana. 2007ko dekretu baten agindua izanik aspaldi eskatu behar zitzaizela uste dugu. Gure aburuz, ez da ulergarria, Abeltzasketa, Altxaga, Arama, Beasain eta Lazkaoko udal ordezkariak lege agindua ez betetzea eskatzea mankomunitateari.

Amaitzeko, koronabirusaren krisiak azken bi hilabeteetan Aralarren jendea ez igotzea ekarri du, eta horrek hainbat bide berdetu ditu eta lasaitasuna eraman du bide nagusietara, mendietara eta oro har naturara. Baina, maiatzaren 1etik berriro kontrol eza nabari da Enirio-Aralarren, dagoeneko pistetatik kanpo dabiltzan ibilgailuen argazki eta bideoak iritsi zaizkigu. Beraz, Mankomunitate eta Aldundiari eskatzen diegu ibilgailuen kontrolak areagotzeko eta alarma egoera arintzen doan neurrian herritarroie ere mendian ibiltzeko jarraibideak emateko, mendian arduratsu ibilgaitzen, biodibertsitatea eta paisaia ahalik eta gutxien kaltetuz.

Edozein eratara, eguraldiak eta osasunak lagun, urte oparobat opa diegu Aralarren ibiliko diren abeltzainei, bereziki profesionalei.

Landarlan Ingurumen elkartea

Bidania-Goiatzen udalekuak bertan behera geratu dira

BIDANIA-GOIAITZ // Bidania-Goiazko Udalaren asmoa jarraitu beharreko osasun eta segurtasun protokoloak kontuan hartuta udalekuak antolatzea bazen ere, azkenean bertan behera uzteko erabakia hartu du. Arrazoi nagusia, «haurren eta begiraleen osasuna lehenetsi nahi izatea» izan dela aitortu dute. Eudelen gomendioei jarraituz, arduraz jokatu nahi izan du, eta «erabakirik zentzuzkoena» hori dela uste du udalak. Ernio guraso elkarteari ere horrela jakinarazi diotela argitu dute.

Txakur jabeei isunak jarri ahal izateko frogak behar dituzte

BIDANIA-GOIAITZ // Txakur jabe eta herritarren kexen artean dabil Bidania-Goiazko Udalak. Udalak txakur jabeei isunak jarri ahal izateko frogak behar dituela jakinarazi du, «hitzeekin bakarrik ezin delako isunik jarri». Horregatik, herritarrei eskatzen die, «portaera desegoki» horiek ikusiz gero, argazkiak atera eta ondorengo zenbakira bidaltzea: 603 72 18 45. Bidaltzailearen datuak babestuta mantenduko direla adierazi dute udaletik.

Igandean meza izango da Amezketako elizan

AMEZKETA // Koronabirusak elizak ere itxita izan ditu, eta normaltasun berrira egokituz, Amezketako parrokiak ohar bidez jakitera eman du igandean izango dela lehen meza. Hilaren 24an emango diete hasiera meza eta ospakizunei. Ohiko orduan, hau da, 11:15ean izango da itxialdi osteko lehen meza, Amezketako parrokiaren.

Txakurren jabeei abisua, betebeharrak gogorarazteko

IKAZTEGIETA // Ikaztegieta Udalak txakurak dituzten herritarrei oharra bidali die. *Txakurra zurea bada, bere kaka ere balieloplean zabaldu du mezua.* Alde batetik herrian txakurra lotuta eraman behar dutela gogorarazi die, eta bestetik, herriko edozein tokitan, izan publiko edo pribatu, kaka egiten badute jaso egin behar dutela.

Haur eta gaztetxoei begirako udako eskaintzarik ez, Alegian

E. Maiz Alegia

Alegiako Udalak haur eta gaztetxoei zuzenduta udarako antolatzen dituen ekimenak ez egitea erabaki du. Eudelek udalei bidalitako gomendioen artean, herrietan antolatzen diren udalekuak bertan behera uzteko aholkua dagoela adierazi du Alegiako Udalak. Covid-19a dela eta, «sorturiko egoerak ez du bermerik ematen behar diren neurriak hartuz, udalekuak antolatzeke», argitu dute. Honenbestez, udalak uztailan antolatu ohi dituen ludoteka eta udalekuak bertan behera uztea erabaki du.

Hala eta guztiz ere, eta epe laburrean egoera nabarmen aldatuko balitz, Alegiako Udalak udalekuak antolatzeke aukera aztertuko lukeela nabarmendu du. «Guztion, eta bereziki gure umeen osasunaren alde, erabaki zentzudunena dela uste dugu. Ez da gustuz hartutako erabakia», argitu dute udaletik, eta une honetan «zentzuz eta arduraz» jokatzeko dela garrantzitsuenari diote.

Liburuak mailegatzeko aukera jarri dute martxan, Ikaztegieta

E. Maiz Ikaztegieta

Ikaztegieta Udalak liburutegia itxita egon arren, liburuak mailegatzeko aukera herritarren eskura jarri du.

Libururen bat irakurri nahi duen herritarrek www.katalogoak.euskadi.eus webgunean sartu beharko du. Behin erabiltzaile zenbakia eta pasahitza sartuta, katalogo osoan sartu behar da. Bertan, Gipuzkoan sartuta Ikaztegieta herria aukeratu beharko da. Honela, herriko liburutegian dauden liburuak zeintzuk diren ikusiko da.

Bertan egin daiteke irakurri nahi den liburuaren erreserba, eta jarraian, liburutegiko ardura-dunak buzoian utziko lioke liburuaren eskatzaileari.

Herritik ateratzeko aukera eman duten bezain pronto atera dira mendizaleak; Txindokik agerian utzi du bere erakarpena

Mendi gosez

Eneritz Maiz Etxarri
Abaltzisketa


Herriko ateak zabaltea nahikoa izan da mendizaleak mugitzeko. Txindoki mendiak astelehen goizean goiz jaso zituen lehen bisitariak. Asteguna izanagatik, kotxe ugari elkartu ziren Txindokiren magalean. Jon Zubizarreta Abaltzisketako alkateak horrela kontatu du: «Goizeko zortzietarako 22 kotxe zenbatu nituen Larraitzen. Eta gero, egun osoan zehar nabaritu zen mugimendua. Mendizaleak, txirrindulariak, motozaleak...». Tabernak, ordea, itxita daude oraindik Abaltzisketan.

Eguraldi ederrak asko lagun du du horretan, eta atzo ere joan-etorria izan zen Abaltzisketan. Zalantzak zalantza, jendeak ez du aukera galdu nahi izan. Alegia, Amezketak, Amasa-Villabona edota Tolosako mendizaleak goizean goiz mugitu dira. Donostialdetik ere gerturatu dira. «Maskara eta eskuetarako gelak hartuta etorri gara», adierazi dute. Eta nondik etorri diren esateko zalantza ere izan dute. Bada kezka, zer, noiz eta non egitearekin. Ordutegiak eta biztanle kopurua ahoz aho.

Gogo da mendizale guztiek aipatu dutena. Eta behin igota, orain gogo handiagoa duenik ere bada. Giro ederra aipatu dute, eta goiko aldean, haizearekin giro atsegina. «Hau poza» izan da billabonatarrari atera zaiona barru-barrutik langara iristean. «Etxe inguruko mendietan ibili gara, baina Txindoki ezberdina da». Etxealdia nabaritu du. «Itu-



Atzo goizean kotxe ugari zeuden Larraizko aparkalekuan. E. MAIZ




Bakarrik edota lagun artean egin zuten mendi buelta. E. MAIZ

rrira bitarteko bidea ondo, baina gero nabaritu dut etxean egondako denbora».

Amezketan bizi eta Larraitze-ra joan ezina nabaritu duenik ere bada. «Igandero dugu Larraitze-ra etortzeko ohitura, eta luze egin da. Gaur, paseo txiki bat ematera etorri naiz».

Goiztiar ibili dira batzuk, eta presa handiegirik gabe beste batzuk. Ia bi hilabete jenderik ibili gabe egonagatik bidean ez dute aldaketa handiegirik nabaritu mendizaleek. Naturak ez du biderik estali, eta hemendik aurrera naturaz gozatzeko bidea izango da Txindokirena.



ORIA  BEILATOKIA
TANATORIO

Usabal Ind., 12· 20400 Tolosa
943 69 75 79

www.funerariaoria.com

Euskal Herriko 14 herritan ehunka saio eskaintzea aurreikusita zuen Gure Zirkua. Ezohiko egoerak, ordea, atzera bota ditu plan guztiak; soluzio bila dabiltza, herritarrek aurten ere zirkoaz goza dezaten

Argiak itzalita ditu oraingoz

Josu Artutxa Dorronsoro

Iker Galartza eta Joseba Usabiaga, artista gehiagorekin batera, 2018an hasi ziren Gure Zirkua proiektua Euskal Herriko herri eta hiriburuetan aurkeztzen. Orain arte, ehunka emanaldi eskaini dituzte; iazkoak ez zuen zerikusirik duela bi urteko arekin, eta aurtengo saiorako ere eduki berriak sortzen eta egitura berritzen ari ziren. Martxoan ziren entseguekin hastekoak, eta maiatzaren lean, berriz, emanaldiekin. COVID-19aren pandemiak eragindako alarma egoerak, ordea, itzalita mantentzen ditu, oraingoz, zirkuko argiak.

Galartzak, ordea, fokuak noizbait berriro pizteko esperantza du. «Une honetan, geldirik dago Gure Zirkua, eta galdera ikurrez bete da karpa. Zorionez, beste lan batzuk egiten ditugu bertako artistek, eta beraz, horri heltzen diogu orain». Beste ikuskizun askori bezala, itxarotea egokituko zaie. «Hala ere, futbola ikuslerik gabe hasten bada, ziur naiz zirkura ez dela inor sartuko», dio.

Enpresa askotan, Aldi Batera-ko Enplegu Erregulazioak aplikatu zaizkie langileei. Gure Zirkuan, baina, bestelakoa da egoera. «Kontratu osagarri moduko bat izaten dute artistek, sei hilabeteko lanaldiarekin. Orain geldirik harrapatu gaituenez, ez dugu ABEE-rik aplikatu behar izan. Hori, baina, ez dakigu onerako edo txarrerako den».

Zirkua geldirik egon arren, gastuak ere badituzte. «Karpa-



Aurtengo udan ezinezkoa izango da Gure Zirkua emanaldiaz gozatzea, ez behintzat orain arte ezagutu dugun moduan. I.U.

ren aseguru edota kamioiaren IAT-a ordaindu behar dira. Genuen koltxoi ekonomiko txikiak, emanaldi berrirako inbertsio txikiak egitea ahalbidetzen zigun. Ez ginen entseatzen ari, baina dekorazioan pentsatzen, abestiak aukeratzen edota eduki berriak sortzen ari ginen. Hall bat ere erosia genuen. Hala ere, aurreko bi urteetan moldatu garen bezala moldatu beharko gara, kontuan izan behar baita, diru-sarrera bakarra, sarreraren salmentan lortutakoa izaten dela».

BALIARRAINEN ERE BAI

Dirudienez, aurten ezinezkoa izango zaie emanaldiak eskaintzea, ez behintzat orain arte ezagutu den moduan. «Egoera hau

gehiago luzatuz gero, komeriak etorriko dira» dio Galartzak. «Ohartzerako ekainean sartzeragoaz, eta udara etorriko da gero; urduritzen hasiak izango gara».

Aurreikuspenen arabera, Euskal Herriko 14 herri bisitatuko zituen Gure Zirkua, besteak beste, Errenteria, Elgoibar, Dima, Barakaldo, Agurain, Sakana bailara edota Iruñerri. Herri bakoitzean bi astez egotea zen asmoa. «Lizarran, Tafallan edota Tuteran egiteko asmoa ere bagenuen, baina agian datorren urterako utzi daitezke». Eskualdeari dagokionez, Baliarrainen ziren izatekoak. Gabonetan ere zerbait berezia egitea aurreikusita zuten, «iazko esperientzia oso ona eta arrakastatsua izan baitzen».

Errenterian, gainera, dinamika desberdinak egin behar zituzten ikastetxeetako haurrekin. «Batetik, gure saioaren entsegu orokorrak egiteko leku bat behar genuenez, bi aste lehenago, karpa jarriko genuen bertan. Bestetik, goizetan, haurren bisitak jasoko genituen, zirkuko artistekin egoteko, bertako bizimodua ezagutzeko eta tailerretan aritzeko aukera eskainiz. Guztiok dakigu zeinen zoriontsua den haur bat itzulipurdika eta soken artean gora eta behera dabilenean».

NEURRI HORIEKIN, ZENTZURIK EZ

Egun, ezjakintasuna da nagusi zirkuko artisten buruetan. Galdera eta zalantza ugari dituzte. «Uztaila bitarteko saioak bertan

behera geratu dira. Uztaileko lehen hamabostaldikoek ere zalantza handia sortzen dute. Hala ere, zintzoak izanda, harmailen %50a soilik bete badaiteke, Gure Zirkua ez du zentzurik. 120 lagun sartuko genituzke, baina oso zaila izango litzake guztien segurtasuna bermatzea. Zirkua polita da bai, baina txikia ere bai».

Ondorioz, soluzio bila dabiltza artistak, besteak beste, ez dutelako ezer egin gabe geratzeko asmorik. «Kultur eskaintza txikiagoa izango da aurten. Aukera bat izan daiteke, leku finko bat topatu, 600 lagunentzako karpa handiagoa ekarri, eta 300 sartu ahal izatea. Behin hori jarrita, hainbat astetako egonaldia egitea litzake onena, udan ere zirkua gozatze-ko aukera izan dezagun».

Bestelako alternatibak ere jarri izan dituzte mahai gainean. «Askok aipatu digute *online* bidez emanaldiak eskaintzearen ideia. Horrek, ordea, ez du zentzurik, zirkua tokian bertan, zuzenean bizi behar delako. Bestetik aire librean eskaintzearena ondo pentsatu eta baloratu izan dugu, baina noski, Euskal Herrian bizi gara. Edozein unetan sekulako zaparrada bota dezake, eta saioa bertan behera geratuz gero, komeriak izango genituzke».

Bien bitartean, elkarren arteko harremana mantentzen dute kide guztiek, egunero. «Batzuetan triste gaude, besteetan aieruka, edota positiboan pentsatzen. Bideoak ere partekatzen ditugu, zenbat hobetu dugun ikusteko. Bira gehiago atzeratuz gero, hobekuntzekin itzuliko gara».

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Pilota hotsak frontoietan

Pilotariei aukera zabaldu zaie berriro frontoietan sartu eta pilotakadak emateko; bere aldetik, Miren Larrartek badaki Emakume Master Cupeko finala jokatu duela, data zehatzik ez badu ere

Imanol Garcia Landa

Pilotariek hainbat egun daramatzate frontoietan entrenatzen, eta horietako bat da Miren Larrarte bidaniarra. Emakume Master Cup txapelketaren finale-rako sailkatu zen, binaka pilota mistoaren modalitatean, baina partida hori jokatu aurretik iritsi zen etenaldia. Oraindik ez du data zehatzik, baina uztailaren zehar izango da finala. «Hasiera batean ekainaren 21ean jarri zuten finaleko data, baina gero atzeratu egin dute», esan du Larrartek. «Finaleko egunean pilota goxoaren binakako finala ere jokatu da, eta modalitate horretan finalerdiak oraindik jokatzeke dituzte. Uztailaren hasieran jarri diete finalerdietarako data, beraz, finalak geroago izango dira».

Data ez baina lekua jakina da, Irungo frontoian izango baita finala. Ez da aurreikusten publikorik izatea, eta telebistaz eman go dute zuzenean jardunaldia. «Horrelako partidetara jende asko joan ohi da, eta giroa oso animatua izaten da, baina oraingoan ezberdina izango da. Isiltasun handia egongo dela iruditzen zait, eta animo falta hori sumatuko dugu. Baina, behintzat, jokatu egingo da, eta alde horretatik gustura gaude», azaldu du Larrartek.

Etxetik kanpo kirola egiteko aukerarekin batera, frontoietan entrenatzeko da gehien nabaritu dutena pilotariekin. Larrarte Bidaniako frontoira joaten da: «Eskuak egiten jarraitzeko, eta teknikoki berriz pilotan hasteko, alde handia dago». Emakume Master Cupeko finala jokatu behar duenez, udaletxean baimena eskatu zuen frontoia erabiltzeko, eta eman zioten, bakarrik aritzeko baldintzarekin, besteak beste. «Frontoi batean denbora asko ibili gabe nengoela nabaritzen nuen hasieran, baina egia esan pixkana hobetzen joan naiz, gustura sentitzen naiz, eta faltan asko botatzen nuela nabaritu du».

LEHIAN HASTEKO ZAIN

Pilotari profesionalak ez dute lehian hasiko diren dataren inguruan oraindik zehaztasunik.



Ezkerreko irudian, Jokin Altuna Amezketako Larrunarri frontoian entrenatzen. Eskuineko irudian, Erik Jaka Oresako frontoian, entrenamendu batean. I.G.L.



Iñaki Artola, Alegiako Kalebeherako frontoian entrenatzen. I.G.L.

Jokin Altuna amezketarrak azaldu duenez, «dirudienez enpresek ekaina bukaera edo uztaila hasiera aldera hasi nahi dute. Ematen duenez, akordio batera iritsi dira, eta ze egoeretan hasiko garen pilotariekin adostea izango da hurrengo pausoa. Dirudienez eskaintza ekonomiko bat egingo digute eta akordio batera iritsi beharko dugu. Beraz, pentsatzen dut udaran pilotan jokatu dugula».

Etenaldia ezarri zenean, Erik Jaka lizartzarra Binakako Txapelketaren finalerdietako ligaxka jokatzen ari zen. Txapelketaren etorkizunaz ez du oraingoz berririk: «Hasieran esan zena dakit, hau dena bukatzen zenean, txapelketari bukaera ematea zela asmoa, baina ez dugu jaso beste albisterik». Oraindik aldi baterako erregulazio espedientea dute pilotariekin, eta dirudienez, horrela jarraituko dute alar-ma egoerak iraun bitartean.

Askoz ere gusturago sentitzen dira pilotariak etxetik ateratzeko aukera dutenetik. «Buelta eder batzuk egin ditut, baina fisikoa garajea egiten jarraitzen dut»,

esan du Altunak. «Alergiarekin nahiko gaizki ibiltzen naiz eta kanpoan horren eragina pixka bat nabaritzen dut». Amezketarra herriko Larrunarri frontoian ari da entrenatzen, astean hiru bat aldiz. «Berriz ere pixkana pilotari sentitzen hasita gaude», esan du. Ez du egunero entrenatzen frontoian: «Kolpean egunero hastea ez litzateke ona izango. Hasi aurretik sekulako gosea nuen hasteko, eta hori ere pixka bat mantendu egin behar da».

Iñaki Artola alegiarrak azaldu duenez, «oso berri ona izan zen guretzat etxetik kanpora atera ahal izatea kirola egitera. Konfinamenduan aukera izan dut etxetik ateratzeko herrian daukagun baserriari esker, eta ez zait hain gogorra egin. Kirola egin ahal izan dut, korrika saioak eginez». Frontoia botatzen zuen faltan alegiarrak. Inguruko frontoi irekietara joaten ari da eskuak egiten joateko. «Frontoia eta gimnasioa izaten ditugu gure entrenatzeko bi lekuak. Gimnasioa ez dugu zapaldu, baina beste mota bateko ariketak eginez, hori ordezkatu dugu. Orain fron-



toietan aritzeko aukera zabaldu zaigu. Pilota ez da bakarka egiteko kirola, baina behintzat eskuak egiteko balio du». Hasierako egunetan herriko Kalebeherako frontoian aritu da, eta azken egunetan Orendaingo frontoian eta Aldabakoan ere aritu da.

Kirola egiteko etxetik atera ahal izatearen inguruan, iritzi berekoa da Jaka: «Beste puntu bat da. Etxetik atera gabe egon behar izan dugu, eta orain ateratzeko plus horrekin eramangarriagoa egiten da. Aire librean egoteak, niri behintzat, beste oxigenazio puntu bat eta animoa ematen dit». Jakak gustuko du mendira joatea, eta entrenatzeko bakarrik ez, gustura sentitzeko ere baliatzen ari da. Udalari herriko frontoian eskatu zion entrenatzeko aukera: «Legeak garbi ez zeudela eta momentuz baiezkorik ez nuen jaso, eta hori ikusita Oresako Udalari galdetu nion ea bertako frontoian entrenatu ahal nezakeen, alde batetik irekia baita, eta baiezkoa esan zidaten».

ENTRENATZEKO AUKERA

Pilotari profesionalak kezka bazuten entrenatzeko aukeren inguruan, ez baitaude federazio baten barruan. «Profesionala- ra saltoa egin bitartean, Gipuzkoako federazioan geunden federatuta», esan du Jakak. «Baina Aspe eta Baiko enpresa pribatuak dira, beraien arteko liga profesionala dute, eta hasiera batean zenbait arazo izan ziren kirolari profesionalak ginela erakusteko. Gero ikusi zen gure hitzarmenekin profesionalak ginela erakusten zela, eta modu horretara ez dut arazorik izan».

Frontoiaren lehenengo egunean arraro sentitu zen Altuna: «Jarrera pixka bat galduta, besoa motelago... Bi hilabetetan pilotan ibili gabe, nahiz eta fisikoa egiten aritu, besoaren azkartasuna galdu egiten duzu». Konfinamenduari aurretik eskuetatik nahiko gaizki zebilen amezketarra, eta partida bat ez zuela guztiz ondo bukatzen: «Konfinamenduan nabaritzen nuen oraindik koskorra hor nuela, pilotan ibili gabe eta masajerik hartu gabe ez baita joaten». Baina frontoian entrenatzen hasi denetik, takoekin asmatzen ari dela dio eta eskua hobeto sentitzen duela.

Jakak ere frontoiko lehenengo egunetan sentsazio arraroak ziotuen: «Eskuak pixka bat beherago, gorputza motelago, baina pixkana hobeto sentitzen ari gara. Partidak hasterako nahiko denbora izango dugu, ez agian etenaldiaren aurretik nuen puntua berreskuratzeko, baina bai antzeko batera iristeko».

Bere aldetik, Artolak sentsazio onak izan ditu. «Nahiko ondo aurkitu dut nire burua. Niretzako ez da sentsazio berririk izan denbora dezentean geldirik egon beharra». Aurretik ere lesioengatik egokitu zaio denbora luzeagoan geldirik egotea, eta egoera horietan gehiago nabaritu zuela azaldu du: «Ez dut uste hainbeste galtzen denik fisikoa mantentzen baduzu. Nik uste dut pare bat ibilitan berriz ere berreskuratzen dituzula sentsazioak, beti ere eskuek behintzat eusten badute. Nik ondo daukat, eta gustura nago». Partidak noiz jokatzen hasiko diren jakitea falta da orain.



ASTEAZKENA, 2020KO MAIATZAK 20
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 20

ATARIA IRRATIA

09:00-12:00. Pasahitza. Eguraldi iragarpena Iker Ibarluzearekin, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa (CAF Elhuyar saria jaso berri duen Josu Lopez-Gazpio kimikari tolosarra) eta euskararen inguruko solasaldia (Maixabel Zubillaga Aitzol Udal euskaltegiko irakaslea eta Jone Tolosa Tolosaldeko AEK-ko zuzendaria).

12:00. Entzuteko jaioak. Musika saioa.

16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

28 KANALA

11:00. Etxean aktiba zaitez
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Harri salda
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoa. Cecilia Bronte.
Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz
Galarza. Larramendi kalea, 6.
943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro nahiko beroa izango dugu. Egun osoan zeruia erabat garbi egongo da eta giro eguzkitsua gozatu ahal izango dugu. Haizeak ipar/ipar-ekialdeko joko du eta tenperatura maximoa koska polita egingo du gora gaurkoan. Eguneko erdiko orduetan iritsiko da gorenera tenperatura, eta 27 eta 28 gradu artean joko du goia.

Bihar. Aurreko eguneko giro eguzkitsua jarraipena izango du. Egun osoan zeruia erabat urdin mantenduko da. Hala ere posible da lehen orduetan hodeixkaren bat edo beste azaltzea, baina, inolako ondorioz gabe. Haizeak aldakor joko du eta tenperaturak altua izaten jarraituko du. Atzo-koaren antzera mantenduko da, eta maximoa 26 eta 27 gradu artean geratuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



ETXEKO LAN BERRIEKIN ETXERA

Zizurkilgo Pedro Mari Otaño Herri Eskolako familiak eskolara hurbildu ahal izan ziren herenegun, orain arte egindako lanak eraman eta ondorengo hiru asteetarakoak poltsan eramateko. Segurtasun neurriak hartuta egin zuten: eskolara sartzeko sarrera eta irteera bakarra, trukea frontoiko eremu ireki eta zabalean, familientzako ordutegi zehatzarekin, poltsak utzi eta hartzeko espazio banatuak eta famili eta irakasleen arteko distantzia errespetatuz. Hori bai, eskolako arduradunek azaldutakoaren arabera, «merezi izan du, une batez behintzat, elkar ikusi eta bi hitz egin ahal izateko». Ikasle zaharrenak papereko lana eta irakasleekin topaketa digitalak, biak ari direla uztartzen azaldu dute Pedro Mari Otañotik. ATARIA

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak,
jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Prezioa	Atarikideek
15,50€	12€
31€	23€
45€	33€
51€	38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

BAT EGIN GUREKIN!!

ATARIA IRRATIA: 107.6 FM eta ataria.eus/irratia

Goizean

- Aktualitatea
- Solasaldiak
- Elkarrizketak
-

Arratsaldean

- Euskal Herriko aktualitatea

Gauean

- Saio bereziak

Egin zure ekarpena

- Whatsapp bidez: 687 410 033
- Abestiak eskaini, zoriendu, albisteen berri eman, proposamenak egin, kexak....

ESKUALDEKO
EUSKARAZKO IRRATIA